

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko ekainaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Gaztetxea bigarren urteurrena ospatzen ari da.

Luis Javier Lizarraga • «Bokazioa nuena asetzeko aukera eman dit psikiatrikoak»

Abian da Biaizpe telezentroa



• LUIS AZANZA

Biaizpe telezentruak hainbat zerbitzu eskainiko dituen aretoa.
• MIKEL SAIZ

Irurtzunen zabaldu berri den Biaizpe telezentroa Cederna-Garalur Elkartearen eta bertako Udalaren lankidetzaren fruitua da. Nafarroako mendialdean informazioa eta komunikazio teknologia berriak bultzatzeko helburuarekin sortua, enplegua sortu eta zerbitzuetarako sarbidea hobetu nahi luke egitasmoak.

Altsasu • Josefina Arregi zahar etxea, errotuta

Zentruak eskaintzen dituen kanpo kontsultak bikoiztu egin dira 1997an

Josefina Arregi psikogeriatrikoak eskaintzen dituen hiru zerbitzuek goranzko joera izan dute. Eguneko zentroaren erabilera, esaterako, % 105 igo da.



Altsasuko Josefina Arregi zentruak oso emaitza onak lortu zituen joan den urtean.

• AMAIA AMILIBIA

HIRU URTE BETE DITU ALTSASUKO Josefina Arregi zentroak, alzheimer gaixotasuna duten zaharrak tratatzen dituenak. Zahar etxearen lana gero eta errotuagoa dagoela adierazten dute bertako arduradunek joan den urteko ekitaldiko balorazioa egitean eman dituzten datuek eta iritziek.

Belen Sanchez Altsasuko Osasun etxeko medikuaren arabera, biztanleriaren zahartzearekin batera tankera honetako gaixotasunak ugaltzen ari dira. «Altsasuko osasun etxerako biziki lagungarri zaigu Josefina Arregi zentroa, ezinbestekoa», dio. «Osasun sareko baliabideak murriztak dira zahartzaroko buru-gaixotasun tipologia hauei behar bezala aurre egin ahal izateko. Halako gaitzak dituzten gaixok kontsulta espezializatua jasotzeko aukera dute, baita orimen klinikan neurketa egiteko gaitasuna ere, gaixotasunaren diagnosi bat egin ahal izateko», gaineratu du.

Zentroko koordinatzaile Angel Albenizek dioenez, «Altsasuko psikogeriatrikoa aitzindaria da», alzheimer eta zahartzaroko eritasun

mota ezberdinak zaintzen espezializaturik dagoen zentro bakarra delako Nafarroan. Albenizen arabera, Nafarroako Alzheimer gaixotendako egituraketa plana egiteko dagoen arren, zentroak eskaintzen duena aintzat hartu beharreko eredia da. Nafarroan 7.000 lagun dira Alzheimerren gaitza dutenak, eta denboraren poderioz gaixo hauendako Eguneko Zentroak sortzen ari dira. Ines Frances geriatrian espezializatua da eta zentroko medikua. Haren arabera, ezinbestekoa da «baliabideak koordinatzea». Zentrokoen iritzia Alzheimer gaixoen familiako elkartearen eskakizunarekin bat dator, eta sare bat sortzeko aukera ere lan-tzen ari dira.

Boluntario taldea abian da

Aurrean aipaturiko hiru zebitzuetaz gain —ospitalea, eguneko zentroa eta kontsultak—, Josefina Arregi gaixo hauen familiendako aholkularitza eta prestakuntza unitatea eskaintzen du. Aurten, gainera, lehendabiziko aldiz gaixo horiek lagunduko dituen boluntario taldea trebatzen hasi dira. Laurindo Miji da egitasmo honen aholkulari teknikoa. «Sakana bezalako eskualde batean talde polita osatzea lortu da», dio Mijik. Eskualde osoko 23 lagun ari dira parte hartzen egitasmoan. Orainsu bukatu dute egitasmoaren lehen zatia. Heziketa emana dago, eta uda ondo-

ren hasiko dira gaixoen familiei laguntzen.

Zahartzaroko buru-nahastea izanik etxean ezin egon daitezkeen 20 lagunendako lekua dute eguneko zentroan. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 6:00etara egoten dira han. Gaixo hauen batz besteko adina 80 urtekoa da. Bertan dauden artean emakumeen kopurua gizonetakoena baino handiagoa da, %64 baitira emakumeak. Ospitalean, berriz, 13 ohatze dituzte. Eta iazkoan 138 lagun igaro ziren. Kanpo kontsultaren zerbitzua, berriz, 250 gaixok erabili dute.

→ Amaia Amilibia

Betelu • Gaur hasiko dira sanpedroak

LEHENDIK ERE GAUZA JAKINA DA Betelu, sorginen edo deabruen ikulu dela. Behar bada horregatik, sorgin batek emango die hasiera aurten-go jaiari. Bostetan, suziriarekin batera, globo batetik jaitsiko da sorgina. Hamarretan, herri afaria izango da Zigari elkarteak, poteo herrikoia bukatu bezain laster. Ondoren, berriz, dantzaldia Laiotz taldearekin.

Bihar goizez, puska-biltzea izango da, eta gero, presan bilduko dira herritarrak, paella-janaren inguruan. Ondoren, ahate harropaketan saiatuko dira, errekan bertan. Plater tiraketa, Astunalde dantza taldearen emanaldia eta pilota partidua dira arratsaldeko iragarritako ekitaldiak. Larunbatean ere, musika Laiotz taldearen ardura izango da. Bestalde, Full Monty pelikularen eragina Betelura ere iritsi da, eta gaupasa bukatutakoan, «sari beroak» eskuratu ahal izango ditu ausardiaz beterik denen aurrean biluztea erabakitzen duenak.

Igande goizez, mendi bizikleta lasterketa, eta arratsaldean, Araitz-Betelu eta Imozko taldeen arteko herri kirol lehiaketa izango dira. Musutruk taldeak jarriko du musika.

Astelehenean amaituko dira jaiak. Goizeko zazpitan hasiko dute bertako aurorok herrian zehar egin beharreko ibilaldia. Arratsaldean, Aitzur Jaurtiketa eta pilota partidua izango dira. Disko berriko lanak plazaratuko ditu, azkenik, Etzakit taldeak.

→ Urko Aristi

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Urte askotan Iruñean egositako hainbat saltatan izandako ekaina berotsuak ez du antzekorik erakusten aurten. Agian gehiegi europartu eta aspergarri bihurtu gara. Kanpotik galdetzen didatenean ia gurean zer gertatzen ari den ez dut azkenaldi honetan deus aipagarri topatzen, ez gutxienez intereseko solasa sor lezakeenik.

Egia da Urralburu, Aragon, Roldan, Espartza eta ingurukoak ari direla epaitzen aspaldian. Baina gizariek ez die goitik behera eroritako mandatari sozialista ohiei kasu handirik egiten. Ikusi besterik ez da egin behar zeinen hiritar gutxi hurbiltzen diren epaitegira epaiketaren jarraipena egiten den egunetan. Ez dira kaleko mintzagai izaten Ruis de la Cues-

Egindakoak

ta epailearen aurrean esaten direnak. Hauek ez dute behintzat bazterrik nahasten. Ez dugu behar bada ongi egiten. Egindakoak ez dira txikiak izan eta gu guztion diruekin eta gu guztion izenean egindakoak dira. Epaiketa aurrera joan ahala geroz eta gutxiago dira airean geratzen diren zalantzak.

Auziperaturiko agintari sozialistak ez ziren besotz ibili eta aipatzen diren diru-kopuruak eta hauen joan etorriak aberatsek egiten dituzten ametsen tainakoak dira. Baina herri xeheak eman du seguruenera bere behin behitiko erabakia. Esan du bere garaian esan beharreko guztia. Ezkarotzeko harropuzak, nunbait erresumaren errege milaka urteetan izan behar zuela uste zuenak, gainean dauka bildu-

rik bere hiritar-morri izandako guztien mespretxua. Aragonen malkoek ez dute bihotzik estutzen eta Oli-viaren janzkerak ez dute jadanik pasiorik larrotzen.

Epaileak ezer esan aurretik herriak buelta eman dio jendilaje horren orriari.

Eta bertantxe ditugu Sanferminak. Urte luzeetan lagunak izanen ditugun batzuk topatzeko garaia, edota festa-giroa bitartean soilik iraunen duten adiskidantzak egiteko, amodio motz eta baita luzeak sortzeko. Laister itzaltzen diren txinpartak piztuko sira su artifizialean eta karrketan bamako gau luzeetan. Erre gabe, berotu ziatezte su iragankor horietan, ez galdu bizitzari zukua ateratzeko aukera eta gorde ie-zaidazue onik, zerbait azken bi egunetarako.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Astronomiaz

Partikulen azeleradore izugarri bat piztu da Iruñearen erdian. Printzipioz Burgosera abiatzen ziren Frankfurt motatako milaka saltxitxek norabidea aldatu dute eta honuntza datoz. Siamen jo behar zuten telefono dei batzuk azken momentuan atzera egin eta Iturramako hotel batean jo dute gela bat erreserbatzeko. Garagardoen banatzaileak, Madrilen, «nora» galdetu dio enkargatuari eta «Iruñera» erantzun diote: «Iruñeara gaur, Iruñeara bihar, Iruñeara etzi, seigarren almazenean dauden barril guzti haiek eraman arte». Menorkan San Joaneko festak iraun duten bitartean han egon diren Tirapitxonekoak barraka kamioian sartu dute, kamioia ferryan, eta itxasoaren erdian daudela Iruñean eskatu behar dituzten paperetaz ari dira. Iparreko hiritarrek, Iparrekoak bereziki, zertarako engainatu: Iparrekoak bakarrik, Interneten Iruñeko loturak klikatzen dituzte zezenen argazkiak eta abioietako prezioak ikusteko asmoz. Baztango zalditxo bat eta bera erosiko duen Balentziarrak, horrela ez badu ematen ere, bidean dira. Bartzelonan oraindik egin ez dituzten milaka kondoek badituzte jada beraien kartoizko kaxak eta kaxa bakoitzean izena jarrita: Iruñea, eta kantitatea: 500 kondo. Texasko neskek oraindik eza gutzen ez duen kaliforniar batekin Gaztelu Plazan ero moduan muxukatuko dena, adiskidearen galderari «To Pamplonia» erantzun dio (izenarekin nahastu da. Zer egingo diogu). Zaharicheko zelaietan Mihurako zezen beltz eta gazte horiek ere Iruñeko bidea hartu dute, bide iluna, algarroba baten itzalean puzkerrak lasai asko botatzen ari diren arren. Mugimenduak zenbakaitzak dira, astronomikoak. Hemen apuntatu ditudan zenbait, gainera, hipotesi hutsak besterik ez dira (agian Texasko neska nirekin muxukatuko da, ero moduan, eta ez kaliforniar batekin, hala bedi!). Elementu bitxi eta unibersal hoienek elkarren arteko talkek Iruñeko partikulen azeleradorean emango dira eta horri «kriston festa» deitzen diogu. Ezin jakin elementu solte guzti horiek sortuko dituzten ondorioetaz. Zenbakaitzak direlako, neurtezinak, izar eta neutrinoen antzera: astronomikoak.

Lizarra • Gaztetxea, urtemuga ospatzen

Bihar Su ta Gar taldearen kontzertua egonen da

Jadanik bi urte bete ditu Lizarrako Gaztetxeak. Bigarren urtemuga ospatzeko Lizarrako Gazte Asanbladak ekitaldi aunitz prestatu ditu egunotan.



Su ta Gar taldeak kontzertua eskainiko du bihar.

• ARTXIBOKOA

GAZTETXEAREN URTEMUGA ospatzeko ekitaldiak joan den asteburuan hasi ziren eta datorrean amaituko dira. Tartean, zinema eta diapositiba emanaldiak, hitzaldiak, jolasak, kontzertuak eta beste izanen dira. Egitarauak egun berezi bat ere izanen du aipagai, biharkoa, hain zuzen ere.

Antolatzaileek herri bazkaria eta Su ta Gar taldearen kontzertua prestatu dituzte, bertzeak bertze. Arestian erran bezala, ekitaldiok joan den ostiralean hasi ziren zinema emanaldi batekin. Larunbatean, berriz, Zirrosis eta Peta Zeta taldeen kontzertua egin zen. Asteazkenean Chiapasko egoera izan zen mintzagai, eta asteazkenean drogen legalizazioa.

Dena den, biharkoa izanen da egun bereziaren Lizarrako gazteentzako. Jaieguna goizean hasiko da. 10:00etan herri kirolak eta pilota partiduak jokatu dira. Halaber, Lizarrako hainbat talderen arteko futbol partiduak egonen dira. Eguerdian, berriz, herri baz-

karia eginen da Gaztetxean, trukean 1.200 pezeta ordainduz gero, betiere. Bazkalostean mus lehiaketa izanen da eta arratseko 8:00etan herriko karriketarik barna kalejira eginen da. Iluntzean, gaueko 11:00etatik aitzina hain zuzen ere, Su ta Gar taldeak kontzertu bat eskainiko du. Sarrerak 500 pezeta balio du. Azkenik, igandean diapositiba emanaldia egonen da 19:00etan. Abenduko Akelarre gauaren irudiak ikusi ahal izanen dira.

Egitarau oparora Lizarrako Gaztetxearen ardura duen Gazte Asanbladak antolatu du, Talde hori Udalak gazteei etxe bat eskaintzeko asmoa agertu zuenean

sortu zen. Lizarrako Udalak Egia-ko Jauregia eraikina utzi zien herriko gazteei, baina gerora eraikin hori liburutegia izanen zela erran zieten Udaletik. Protesta jardunaldien bukaeran etxe bat okupatu zuten gazte asanbladakoek, baina eraikinaren egoera kaskarra zela ikusirik utzi egin zuten. Geroztik, bertze leku batzuetan kokatu izan zen behin-behineko gaztetxea, baina, hainbat arazo tartean, gazteek alde egin behar izan zuten. Duela bi urte, 1996ko ekainean, gaur egun Lizarrako Gaztetxea den eraikina okupatu zuten gazteek.

→ Kristina Berasain

Monteagudo
•
Dantza taldearen X. urteurrena

MONTEAGUDOKO DANTZA TALDEAREN X. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira. Lehena bihar udal pilotalekuan egingen den dantza erakustaldia izanen da. Han izango dira: Baigorriko Arrola dantza taldea, Falcesko Makaia dantza taldea, Zangozako Rocamadord dantza taldea, Baztango dantzariak eta Iruñeko San Lorenzoko dantzariak. Hamargarren urteurrena ospatzeko hurrengo ekitaldiak abuztuko herriko festetan egingen dira. Monteagudoko dantza taldearen eta bere paloteadoaren gaineko liburu bat aurkeztuko da, ia-ia bukatuak dagoena. Zer da paloteadoa edo dancea?. Bi deiturak sinonimoak dira. Paloteado izena bertan makil dantzak daudelako erabiltzen da, baina egokiago litzateke danceri buruz hitz egitea. Bada ikuskizun handi bat, dantzak eta zati errezitatuak biltzen dituen bere baitan. Errezeitatuak, adituek diotenez, Katalunia aldeko Pirinioan sortuko zirartekeen pastoralaren ondorioa lirateke. Pastoralak artzainen arteko elkarrizketak ziren. Gure paloteadoan hortik bi pertsonaia iritsi zaizkigu: mayoral eta rabadan. Bion artean sortzen da elkarrizketa gatz-pipertua, non hirian gertatutakoaren harian, edonorekin sartzeko aprobeztatzen baitute. Geroago beste bi pertsonaia sartu ziren, satana eta aingerua, ongiaren eta gaizkiaren arteko borrokaren erakusgarri nonbait.

→ Joxemiel Bidador



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Menopausia eta drogak

Ttipi-ttapa hamabostekariak. Ezpelura emakume taldeak antolatuta Malerrekan egin menopausiari buruzko ikastaroa izan du aipagai azken zenbakian, Blanca Bañares taldekideari egindako elkarrizketaren bidez. «Gure ustez informazio hutsune bat dago menopausiaren inguruan. Beharbada emakume nagusien artean nabaritzen da desinformazio gehiago. Hala ere, nahiz eta menopausia zer den jakin, beti ikasten ahal da zerbait ere horrelako ikastaroetan. Menopausiaren atarian daudenek nahiz dagoeneko fase horretan sartu direnek fisiologikoki nabarituak dituzten aldaketenga-

tik kezkatzen dira batez ere. Bertzetik, aldaketa horiek ahalik eta arinenak izateko zer egin dezaketen jakin nahi izaten dute normalean», aipatzen du Bañaresek Ttipi-ttapako orrialdeetan.

Pulunpe aldizkariak, bestalde, drogak izan ditu mintzagai Josune Zabalarekin, Irurtzongo Drogen Prebentziorako Programako hezitzailearekin. «Denbora gutxi daramagu eta oraindik ez dugu dena egin, zonaldea oso zabal baita (Imotz, Larraun, Araitz, Arakil...) eta oso zaila baita programa bat egitea udal bakoitzarako. Horregatik pausoka pausoka hasi ga-

ra programa batzuk egiten. Esaterako, tailer batzuk egin ditugu gurasoentzat Irurtzunen, Betelun... Gurasoak askotan eredu bat izaten baitira haurrarentzako, eta uste dugu drogen arazoak baduela zerikusirik haurrek etxean ikusi duten giroarekin. Uste dugu drogari buruz hitz egitean badagoela halako beldur bat. Hainbeste gauza uzten dira profesionalen esku, gurasoei iruditzen zaie ez dakitela haurrekin zer egin horretaz. Horregatik ez zuten ulertzen autoestimaz, autonomiaz, komunikazioaz... hitz egitearena. Baina hori lantzea oinarria jartzea da», dio Zabalak **Pulunpe**-n.

Mendialdea eta komunikazio

berriak uztartu

Informazioa eta komuniario berriak erabiltzeko Biaizpe telezentroa ireki berri da Irurtzunen

Irurtzunen zabaldu berri den Biaizpe telezentroa Cederna-Garalur Elkartearen eta bertako Udalaren lankidetzaren fruitua da. Nafarroako mendialdean informazioa eta komunikazio teknologia berriak bultzatzeko helburuarekin sortua da. Era berean, enplegua sortu eta zerbitzuetarako sarbidea hobetu nahi luke egitasmoak.



Marta Mañas :

«Komunikaziozailak eta hurruntasuna direla eta, aktibitate ekonomikoa dagoen zentru handietara dagoen tartea eta mendialdean ditugun garapen arazoak gainditzen lagundu gaitzake telezentroak».

hurruntasuna direla eta, aktibitate ekonomikoa dagoen zentru handietara dagoen tartea eta mendialdean ditugun garapen arazoak gainditzen lagundu gaitzake telezentroak». Finean, Mañasen irudiko, eskualdean gelditzen den jendeak lana lortzeko aukera gutxiago ditu, edozein kudeaketa egiteko Iruñera joan behar du eta zerbitzuak kontratatu nahi dituzten enpresek Iruñera edo Donostira jotzen dute. Beraz, «teknologia berriak komunikazioak hobetu ez ezik, eskualdera zerbitzuak hurbiltzeko aukera eskaintzen dute», gaineratu du.

Era berean, telezentroak enplegua eta aktibitate ekonomikoa sor lezake zonaldean. «Aktibitate eta aukera berriak aurkitu behar dira ulertzen dugulako teknologia berriak zerbitzu eskaintza sor lezakeela. Badago zonaldean prestakuntza kualifikatua duen jendea baina hemen lan egiteko aukera ez badute joan egiten dira», azaldu du Mañasek. Adibidez eskualdeko diseinatzaile batek bere burua eskaini nahi badu zonaldean egin dezake eta hemengo jendeak ez ezik, kanpokoak ere kontratatu dezake teknologia berrien bidez egiten duelako beharra. Gakoa da teknologia berriak orain arte mugatuak zuden merkatuetara eta lanetara pasatzeko aukera eskaintzea», azpimarratu du Biaizpe telezentroko zuzendari teknikoak.

Elkarlanean egindako apostua
Irurtzungo Trinitate kalean kokatzen den Biaizpe telezentroaren egoitza Nafarroako Gobernuak utzi dio Garalurri. Udalaren eta elkarlearen artean moldatu eta gero, tokian tokiko erakundearen partehartzearen ondorio ere izan da telezentroa. Proiektua eskualdea dinamizatze baliagarria zela ikusirik Sakanako Garapen Agentziak era-

baki zuen Irurtzunen kokatzea beharrezkoa zela. «Zonaldearentzako lan egiten dugunez bertako jendeak partehartzen duen heinean izanen du zentzua, ezartzeaz gain bideragarritasuna izan behar duelako. Guk lehen pausoa eman dezakegu baina gero ingurunearen sostengua behar dugu bertako udalen eta mankomunitateen sostengua, kasu», dio Biaizpeko zuzendari teknikoak. Irurtzunen edo mendialdeko edozein guneetako behararen aurrean bultzatzaile eta ekintzaile izan nahi genuen. Irurtzunen zentru administratiboa da ingurunean, hemen kokatu genuen zonalde interesante batean dagoelako» jarraitu dio Alberto Azpiroz herriko alkateak.

Ido beretik, Azpirozek uste du Irurtzungo Udala ez ezik, eskuldeko besteen partehartzea ere bultzatu behar dela. «Bertako biztanleria herrian gelditzea nahi badute kontzientziatu behar dute autoenpleguaren apostuan. Etengabe trebatu behar dutela eta teknologia berriak aplikazio oso praktikoak direla jakin behar dute. Hori guztia udaletxeek ere frogatu behar dugu. Gure lana da beste udalei ikusaraztea errentagarria dela politikoki zein ekonomikoki horrelako zentrua bat eskualdearentzako» dio Azpirozek. Beraz, Irurtzunen kokatzen den arren, mendialde osoari zuzendua dago.

Teknologia berriak, aukera berriak

Telezentro guztiak ez dira berdinak eta bakoitzak bokazio bat du. Irurtzungoak hainbat aukera eman nahi lituzke; Nafarroako mendialdeko enpresa txiki eta ertain, toki-erakundeek eta profesionalak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea; enplegu eta ekonomia jarduera berriak sortu ingurunean; informazioa eta kalitateko zerbitzu interesgarrietarako sarbidea erraztea; eta eskualdean dauden telezer-

Sareko lehena

Nafarroako mendialdea Europako Baitanle dentsitate gutxiarekin eskualdeen artean lehen da, 5.000 metro kuadrato biziarekin inguru bairatzen duen aintzat hartuz, mendialdeko biztanleek behar duten Garalurren. Funtzio jarraituz abiatu dute telezentroa. Dena den, ez dute horretan gelditzea erorkizunerako telezentroko jarri nahi dituzte. Biak sareko lehena izanen da. «Hirugarren buruan lortu nahi dugu beste antzeko batzuen antzeko Nafarroako mendialdeko oso ongi kokatutako Sakanan eta Udaltzuzatzen garen



Telezentruaren logotipoa. MIKEL SAIZ

bitzuen alorrean sor daitezkeen enpresei laguntza eman, hain zuzen ere. Ido horretan, «teknologia berriak garatu nahi baditugu sostengua ematen duten egiturak sortzen ditugu edo ez dugu deus egiterik. Horretarako sortu da Biaizpe telezentroa» dio Mañasek.

Telezentroa formakuntza eta baliabide aretoaz gain, beste lau gelak eta batzar aretoak osatzen dute. Telezentroak bost funtzio izanen ditu. Proiektuak gauzatu ahal gehiago izanen diren arren, oraingoz hiru langilek egiten dute beharra. Baliabideen zentru bat denez, instalazio horietan ekipamendu informatiko eta telematikoen alorreko azken berrikuntza teknologikoak aurki daitezke eta edonork izanen du horiek erabiltzeko aukera aurretik ezarria dagoen zenbateko bat ordainuz. «Pentsatua dago enpresa ertain eta txikia, profesionala, udaletxea edota kaletarra etorri dadila korreo elektronikoa erabiltzea edo bankuko kontuak kontsultatzea. Lanean bere kabuz baina inbertsio handirik egin ezin duenarentzako edo enpresa bat abiatu nahi duenarentzako», azaldu du Mañasek. Baliabide teknikoak ez ezik, laguntza espezializatua ere eskaintzen dute, horretarako daude Julia eta Pedro Latasa. Ideia komunikazioaren teknologietan egunean egotea denez, harat hurbiltzen denak merkaturatzen diren azken programak eta teknologiak ere ikusiko ditu. Hori bakarrak ez. Enpresa berriak hazteko tokia ere izanen da Biaizpe. Hori, teknologia berriak ezkaitezaz gain, bestelako azpiegitura zerbitzuak ere utziko dizkie (bulegoak, instalazioak eta ekipamen-



Alberto Azpiroz:

«Bertako biztanleria herrian gelditzea nahi badute kontzientziatu behar dute autoenpleguaren apostuan. Etengabe trebatu behar dutela eta teknologia berriak aplikazio oso praktikoak direla. Hori guztia udaletxeek ere frogatu behar dugu. Gure lana da beste udalei ikusaraztea errentagarria dela politikoki zein ekonomikoki horrelako zentrua bat eskualdearentzako»

duak). Hirugarrenik, teknologia berrien alorreko prestakuntza-zentrua ere izan nahi du. «Zonaldean dagoen teknologia berrien formakuntzarako eskaintza gehitu nahi dugu baina planteamendu ezberdinarekin. Trebakuntza oso zehatza eman nahi dugu, enpresa ertain eta txiki egokitua eta zonaldeko profesional eta udaletxeek, gaineratu du zuzendariak. Horren lekuko da egunotan prestatzen hasiko diren web sistema osoak egiteko eta diseinatzeko masterra. Lanerako telekomunikazioaren ingeniari diren bi lagun ariko dira, beste hainbeste diseinatzaile grafiko, kazetari eta informatiko, eta pedagogoko baten laguntza. Era berean, teknologia berriak sartzeko aholkularitza zentroa izanen da eta horiek erakusteko tokia ere. «Betea ez dagoen zerbitzu bat ematera goaz. Erreferentzia puntu izan nahi dugu, eta ez bakarrik mendialdean, baizik eta Nafarroan eta kanpoan», azpimarratu du Mañasek.

Jadanik, Seindea mendialdean gertuko zerbitzuak eskaintzen dituen kooperatiba dute lanean bertan eta aurki Nafarroako Hostaritzako Elkarteekin elkarlanean telelan proiektua abiatuko dute. Bien bitartean, heldu den asteartean telezentruak antolatuta duen jardunaldian nekazal guneetan martxan jarri diren proiektu batzuk aurkeztuko dira, Gordexola-ko kasu. «Jardunaldietan erakutsi nahi dugu zer egin daitezkeen teknologia berriekin eta, era berean, baliagarriak direla zerbitzu, informazio eta enplegua sortzeko frogatu», bukatu du.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Ezezagun baten gogorarazten: Ligiko Martin Maister

«Içanen da duda gabe çoumbait erraile, uscararen iracourteco usantcha gabiac gaitç, phenous, eta goço gabe gherta eraciren diala eguin bide horren complitcia, hori hala içanic ere haxarran, gueroualat bethi hertuç jouanen dira, ihour costumacden den beçala, eta emeki emeki beste lengouagen iracourtia ikhasten den beçala hounena ere ikhassiren da».



Esan ezin bada ere Martin Maister oharkabea igaro den egile horietako bat izan denik, euskal literatura jasotzen duten esku-liburu guzti-guztietan aipatzen baita, aipuaen urri lakarrak sumintzekoa zaigu erabat, areago Maisterren dohaiak izkiriagintzan gorai-patzekoa ohi diren neurrian, izan ere, gorespen hitzekin berekin finitzen baitira komunzki Maisterren gaineko berri zeken eskatuak, eta hasiera batean bezala, geure buruari berriz ere galdetu behar diogu, zalantzakor, eia nor demontre ote zen Martin Maister zoritxarreko hura. Villasanterenean, geure gaiari buruzko esku-liburuetan guztietan horailen dena dudik gabe, ez zaigu ezer berezirik aipatzen, ezpada Intxauspek egile hau idoro zuenetik behin eta berriz errepikatu izan dena baitzik.

Eliz idazgintzan bederen, nahiz egun nahikoa atzundurik daukagun, arras sonatua izan den Kempisen liburua zubere-rara bihurtu zuen lehenbiziko itzultzailea genuke Martin Maister. Eta ez beza inork ere pentsa, eliz gizon batentzako honakoa ohore txikerra zateke-ela, bada, *Kristoren imitacionea*, edo *Contemptus mundi* bezala ere ezagutzen den honakoa, munduan eta historia osoan zehar ia seguru gehien itzuli nahiz idatitu izan den liburuetako baitugu. XV. mendean agertzen hasia, ezagutzen den alerik zaharrena 1441.eko da. Liburuaren egiletasunari buruz bereziki nagusi izan diren teoriak bi izan diren arren, Kempisko Tomas Hemerkenen aitatasuna defenditzen duena da orohar gailendu dena, idazkia Joan Gersoni zor ziona abantxu baztertutik geratu delarik. Euskaraz itzuli zuen lehenbizikoa Pouvreau izan zen, alabaina, eta ezagun

denez, argitara eman zuen lehenengoa Ziburuko apez zen Aranbillaga aheztarra izan genduen 1684.ean. Geroantzean ere Donibane Lohitzuneko apez Mixel Xurio azkaindarrak agertarazi zuen 1720.ean.

Maizterrenak pairatu dituen edizioei dagokienez, bi dira aipatu behar direnak. Estrainekoa, *Jesu-Kristen imitacionia Çuberouaco uscarala herri beraurtaco apheç bateç, bere jaun apheçcupiaren baimentouareki utçulia*, Pabeko G. Dugue eta J. Desbaratz beithan muldezko leteretan ezarria, 1757.ean ageri zen. Bigarrena, berriz, Oloroen atera zen, P.A. Viventenean 1838.ean, jatorrizkoaren kopia peto-petoa izan zelarik. Haatik, 1883.ean Intxauspek berak argitara eman zuen bere Kempisaren aldaerak Maisterrenean zuen oinarri eta funtsa. Geroantzean erabat ixilean joan da, eta desiragarria zitekeen edizio kritikoak egiteke darrai, antza, hagitx gutxiren aztoramendurako dena. Eskuragarriagoa, eta ez gehixegi ere, bietan agertu izan den puxka bera genuke, Lafitteren *Eskualdunen loretegia*-n zein *Gure Herria* aldizkarian ateratako irakurleari sarrera, hots, Lafittek egile ezin interesgarriagoa zeritzon Maisterri: «Ziberotar gaztek on lukete hari jarraitzea. Tartas baino aiphagarriago zaiku, bai gochoz, bai jakitatez, bai hizkuntzaz. Vinsonek haren latin gurbila goretsi baitu, guk haren eskuara maiteago». Eta halaxe da, bada, Vinson zorrotzak ez zuen Maisterren trebezia onartzeko eragozpenik izan: «Le latin de sa dédicace est supérieur au latin

ordinaire des hommes d'Église».

Itzulpenaz denez bezanbateran, gutxi da Maisterrek bere uztatik eskeini ziguna, ez bazi- ren Oloroeko apezpikua zen Frantzisko Revoli eginiko eskeintza elebiduna -euskaraz eta latinez esan bezala-, eta irakurtzailearentzat atondu atarikoak: «Haur duçula, ene iracourçale maitia, çouregatic çoure lengouagia la utçuli içan den librubat, çougn mundu ororen erranalia, escriptura sainta berheçten delaric, beita, bere salbamentia eguin nahi dianaren, içaten ahal den liburic hobena, eta baliouena; hartacoç ere eçtuçu heltu-bada batre haboro lengouagetara utçuli içan denic, arraçou horrec berac saldoutan desira eraci deyo lan hounen eguiliari, bere herritar gachouer sortzepenescio lengouagia baicic eçtikianer sokhorri berauren emaitia, ousteç Jincouaren bide hersian ebiltia, bere buriaren ahal etchehtia, mundiari guerla thai gabeçco-baten eguitia, eta zelialaco imbeya saintubaren ukheitia, libru hounen medioç eçagut eraciric, bere salbamentiarene eguitera erakharriren çutian: bena bere flakheçiaç loxaturic egon içan da thempora luçaç benturatu gabe bere desircuntiarene complitcera».

Aipatu bi zati hauen artean, bereizle, 1756.eko baranthailaren lauan datatu *Jaun bicarl generalaren aprobacionia*, Maulako erretorea zen Jauregizaharren onarpena alegia: «Libru hori atencionereki iracourturen dianac ikhassiren diçu bere buriaren ounxu eçagutcen, mundu falsu eta erhouaren mesperetchatcen eta bihotça celialat altchatcen dialaric çoung diren moyan segurac hara heltececo».



Patziku Perurena

Hegazti beltzen kantu xuria

ironia, Kunderak gogora arazten digunez, ume, emakume, eta iraultzaileek atxiki ez dezaketenez bait. Ez zakiat bat natorren. Nik badiat pizarren bat emakumetik, aurkiren bat ere bai iraultzailetik, eta umetik berriz dextenté. Maite diat halere ironia, ia lan tresna bihurtzeraino... «Halare hor gabiltzak hitza hitzari josi eta parrastadan bo-teaz, denen gustua egin nahian, akaso horixe diagu oztopagarri: denen gustua egin nahia».

Ironiak bazetik bere graduak eta sortzaile/hartzailleak. A. Iturbe nere lekuko. Ez duk gauza bera ema/ume/iraultzaileen ironia pixar erretoriko populatxeroa, eta hitzetan ezin kabitu den beste ironia klase gozo, bizkor, lasa hura. Beraz, bele, Kunderari arrazoi osoa eman ten diok (ziok egungo bertsolaritza intelektualak).

«Hitz kantatuaren artisautila duk gurea. Mesfidatia nauk «arte» hitzarekin...» «Esaioak gizartearen %3ak ere ulertzen ez duen produktuaren izenean gizarte osoaren prestigioa eta estatus berezia lortzen duen eskultorea-ri!». Baina hitzarena duk gutxienekoa, erretorika filologiko hutsa, bestela esan. Edo esaiek: gizartearen %3ak gozaten duen produktuaren izenean jainkotua lortzen duten bertsolariei! «Batzen dohain bereziaren zurrumurruaren gainean eraikitzen duk «arte»; Eta bertsolarien artisautila ez, akaso?»

«Eskuinak esan, ezkerrek erantzun. Eta neke hori gutxi balitz, ezkerre eskurik ahulena izan, baldarrena, buruaren esanak egiten atzenduena». Beraz, «ezkerrek tentua», ordez «ezkerrek tontoa» behar dik zuzenbidez, bele. «Politikaren irudi. Hori duk gure jolasa». Bapo gelditu zaik metafora; oso errentagarria duk diskurtso zuri errukitsu hori, endemas kaferik gabe konformatzen den funtzionario ezkerrentzat.

«Militantzia nere bizialdiko

ardatzetako bat izan dela ohar-tzen naiz. Zenbakitan botako dut: urtean mila ordu inguru ematen ditut lan militantean, ordaindutakoak baino ordu gehiago. Azken hamabi urtean hor nonbait ibilliko nintzen». Konputatu egiten duk orduan, jendeak jakin dezan, zeinen jatorra haizen, eta Otorako aukia utzita, zenbat Herri Albistari sortu duan, eta guziak ideologi gabeko errealitate ukigarriak, diok, ez? Erakutsi behar didak mirari hori. To! Hartzak ispilua: horra Unibertsitateko bigarren titulu bila xoratzen, hi, txiki bihurri! horra banidadea (p)hustutzen, ternura pose eta guzi, Atxaga xeundo!

«Gauza sorgina baita banidade maila /betetzeko erreza hustutzeko zaila. Droga horrekin kontuz ibili behar nuela intuitu nuen hamabost urterekin, eta geroztik beti kontuan izan dut. Iruditzen zait puntako bertsolari izateak, «nia» puzteko aukera ematen duela, eta hori beti da erakargarri, baina, bizi honetan egin dezakegun gauzarik ederrrena juxtu kontrakoa da: «nia» hustu... «Ohartzen haiz, gizarte honetan gutxi egiten diola uko osperei, bertsolariorik egin diogun moduan? Dena genian irabazteko: elkarrearentzat sei miloi, guretzako aparra; baina duintasun minimo bategatik, uko egin zioagu. Ondo, Antonio».

Nere belarriak ezin eraman dik taigabeko autobonbo horrenik. Zinezko banidade zaildu gordea baino askoz nazkante-goa duk nork bere «egoa» apaldu ustez harrotu egiten duen banidade populatxero hori. Duintasun minimorik izan bazenute, urtean zenbat bertsosaiotsaio lotsagarri gutxiago egitea erabaki duzuen, eta zergatik, leituko nian txokoren batean. Baina keba. Eta halare, larrua gorritan erakutsi duzuela, jendeak!

Etsia hartu diat. Ni ez nauk hemengoa. Zozoak beleari «lore arroxak duk, arantzik gabea, erretorika, Hola, Pronto antzekoa» hamarrek dezima.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ekialdeko Jasotarren omenez


Gobernuak errana, ezin dugu ezer sustengatu, besterik gabe gizarteak egin asmo duena lagundu, baina inolaz ere sustaizaille agertu. Leiren, ez dakit nongo erregeen omenez elkartzeko dira, bigarrenez edota hirugarrenez egiten dute, Noaingoak bidea ireki zien. Uste baino arrakasta handiago izan baitu. Zerbait egin beharra zen, ezin baitugu inor sustengatu. Bizkitartean, ekialdekoek Maulen dute elkarretaratzea. Jasotarren omenez jaso!

Luis Javier Lizarraga

Psikiatrikoko zuzendaria

«Bokazioa nuena asetzeko aukera eman dit psikiatrikoak»

Luis Javier Lizarragak 44 urte egin ditu Iruñeko San Francisco Javier ospitale psikiatrikoan lanean, haietatik 22 zuzendari. Bera badoa eta bere irteerarekin batera psikiatrikoaren bizitza bukatzen da. Aurrerantzean zahar etxe izanen da. Bertan egindako urteek nahi zuen guztia eman omen diote: gustuko zuen lanbidean ausartzeko aukera, eta bizitzeko modu bat ere bai.



MEL SAIZ

BATA ZURIA SOINEAN DUELA HARTU gaitu Lizarragak 1904an ireki zen psikiatrikoan. Oraindik gogoan du erietxera iritsi zen eguna, 1954ko martxoaren 15 eguzkitu bat. Bertan sartu zenetik urteak ez direla alferrik joan frogatzeko aukera izan omen du.

■ **Nola baloratuko zenituzke zentroan emandako 44 urteak?**

Nire bizitza izan da. Bizitza guztiak bezala, hobereana gogoratzen duzu. Pozik nago.

■ **Zer eman dizu San Francisco Javier psikiatrikoak?**

Dena. Zentroari esker bizi izan naiz eta egina sentitu naiz. Pozik egon izan ez banintz, alde egingen nukeen. Bokazioa nuena asetzeko aukera eman dit psikiatrikoak. Gainera, eza gutzen nautenen estimazioa jaso dut eta hori nahikoa da.

■ **Joan den ostira-lean egin zizuten omenaldia. Psikiatrikoak egingadako lana onartu da?**

Omenaldiaren berezitasuna da aurrerantzean psikiatrikoa ez dela gehiago ospitalea izanen. Ziklo bat ixten da horrekin: ni banao eta psikiatrikoa ere ez da gehiago buruko gaixotasunak dituztenentzako zentroa izanen. Omenaldiarekin, ni ez ezik, hemen lan egin duten guztiak omendu dituzte.

■ **Botika eta terapia berriak direla eta, psikiatria asko aldatu da azken urteetan. Zuen lanak ere bide bera egin du?**

Orain dela 50 urteko profesionalen egoerak eta gaur egungoenak zerikusid handirik ez dute. Garai batekoak gizaki heroikoak ziren, ez zutelako deus ere, erakunde itxiak izan ezik. Haietan, batzuen ustez,

gaixoak gizartetik babesten zituzten, eta, beste askoren iritziz, gizartea gaixotatik babesten zuten. Ustez oso gaizki tratatzen zituzten eta abandonatuak zeuden. Orain gutxi arte izan dugun ustea da erakeroetxean zeudela eta haietatik babestu egin behar genuela. Ikuspegi horretatik, orduko profesionalen lana eta gaur egungoena oso ezberdina da. Gizarteak errudun sentimendua du, egin behar zuen zerbait ez eginarena, eta horregatik eroetxeak kendu nahi dituzte. Zoroetxeak errepresiozkotzat eta txartzat jotzen dira. Dena den, uste dut ikuspegi hori ez dela egokia, medikuntza garai bakoitzean zeuden baliabideetara egokitu baita.

■ **Zure hitzetan nabari da egin duzun lana ez dela behar bezainbeste baloratu askotan.**

Bidegabeko tratua eman zaio psikiatriari. Egindakoa garai bakoitzean kokatu behar da. Bakoitzaren meritua ez dago egiten duenan, egin zezakeenaren arabera egin izan zuenean baizik. Egin zuenaren eta egiten ahal zuenaren artean dagoen aldeak erabakitzen du meritua. Garai batean psikiatrik ez zezaketen gauza handirik egin; psikofarmakoen etorrerarekin, gaixoak atera egin dira zentroetatik. Dena den, hori ez da inori dominak jartzeko. Duela 50 urte ez zen egin pentsaezina zelako. Psikiatriaren garapena izan da, besterik gabe.

■ **1986an hasi zuen Nafarroako Gobernuak erreforma psikiatrikoa Buruko Osasun Planarekin. Zentroan zeuden gaixoak ateratzen hasi ziren. Asko aldatu dira gaixoak?**

Egiten ahal zuenaren artean dagoen aldeak erabakitzen du meritua. Garai batean psikiatrik ez zezaketen gauza handirik egin; psikofarmakoen etorrerarekin, gaixoak atera egin dira zentroetatik. Dena den, hori ez da inori dominak jartzeko. Duela 50 urte ez zen egin pentsaezina zelako. Psikiatriaren garapena izan da, besterik gabe.

■ **1986an hasi zuen Nafarroako Gobernuak erreforma psikiatrikoa Buruko Osasun Planarekin. Zentroan zeuden gaixoak ateratzen hasi ziren. Asko aldatu dira gaixoak?**

Bai. Tratatzeak aukera izatean sendatzen den portzentaia handiago da, eta orekatzen direnena ere bai, bizimodu normala egiteko. Bestalde, oso gutxi dira zentroaren barruan denbora luze ematen dutenak. Orain ez dago, lehenago gertatzen zen moduan, hemezortzi urterekin sartu erietxean eta han bizitza osoan gelditzen denik. Duela 50 urte hori oso ohikoa zen baina egun ez da horrelako kasurik izaten. Horregatik ixten dira zoroetxeak. Lehenago buruko gaixotasunak tratatzen zituen bakarra eroetxea zen, eta hona sartzen ziren gaizki jartzaren ziren eta kabida zuten guztiak. Egundak, gaixoak beste toki batzuetara joaten dira: hemen zeuden bi ospitalizazio guneetatik bat Nafarroako Ospitalera eraman dute eta bestea Bideko Ama Birjinera. Egundeko Buru Osasuneko Ospitalea Txantrea auzoan dago eta hemen zeuden 18 mediku eta psikologoak beste zentro batzuetara joan dira. Beraz, egungo tratamenduekin ongi erantzuten ez dutenentzako erdibideko zentroak eta egonaldiak aurkitu behar dira.

Zaragozako Unibertsitatean ikasi zuen Luis Javier Lizarraga Larrionek medikuntza. Soldadutza bukatu bezain laster, duela 44 urte, sartu zen lanera San Francisco Javier ospitale psikiatrikora. Bertan egin zuen Psikiatria espezialitatea, eta urte asko izan badira ere gustuko zuena egiteko aukera izan omen du.

Jarauta kaleko 3. zenbakiko etxean jaiotzen duela 70 urte. Zer egina bazuelako ez du erretiroa aurretik hartu. Psikiatrikoan egon den urteen isla dira kaleratu dituen bi ikerketak ere: *La casa del tejado colorado. Memoria General del Manicomio de Navarra* 1992an, eta *Se han disparado los suicidios?* 1996an. Orain *La otra historia del manicomio* bukatu berri du.

Lana utzi badu ere, ez du uste aspertuko denik. Sei biloba ditu eta haiekin egoteko gogo handia. Irakurtzea eta idaztea ere baditu afizio. Gai bertsuak irakurtzen denbora luze jasaten ez duenez, bere ohe ondoan matematikak, detektibe istorioak edo Erromako historia ardatz duten liburak aurki omen daitezke. Dena den, guztia ez da buruari ematea. Maiz, gustuko den kirola egitera —pilotan aritzera— hurbiltzen da Lagunartea elkartera.

■ **Buru gaixotasunak gero eta gehiago dira. Zergatik?**
Egia da buruko gaixotasunak igo egin direla. Behin baino gehiagotan esan dut egungo gizartearen jendeak ez dakiela sofritzen. Horrek ez du esan nahi aurrekoak baino ahulagoak direnik. Norbaiti emaztea hiltzen bazaio, gaizki dago, eta horrela egonen da bolada batean, egoera txar bat bizitzen ari delako; kezkatzen hasiko gara handik bost urtera gaizki badago, orduan bai beharko duela laguntza.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Pello Goñi

E. Leclerc

Tren-Azpikogona eta horrelako astakerien garaia aspaldian joanak zirela uste genuen honetan, albiste izan dira berriki euskararen erabilpen ofizialaren inguruan egiten diren zenbait akats. Adibide franko daude han-hemen horren lekuko direnak. Egia esan, gehienak hutsegite ortografikoak izaten dira, hau da, mezuari zentzua galarazten ez diotenak. Halere, honera ekarri nahi dudan adibidea askoz larriagoa da, eta alor honetan eraldunak erakusten duten axolagabekeria garbi uzten du. Ez dut gogoratzen zeinek abesten zuten, Madrileko movida-ren garaian, «Ikara hipermerkatuan» edo horrelako zerbait zioen letra errepikakor hura, baina primeran datorkit orain lehengo egunean burmuinean sentitu nuen kortozirkuitoa adierazteko. E. Leclerc hipermerkatuak etxeko postontzian utzitako foiletoa leizerakokan gertatu zen. Bertan, Sanferminei begirako kanpaina komertziala aurkezten da «Vive la fiesta» erdarazko lemapean, bezeroari modu zuzenean igortzen zaizkion publizitate-mezu tradizional horietakoa erabiliz. Leclerc-ek eskaintza liluragarriak, jantzi zuri-gorri merkeak, Txupinazorako txanpaina eta abar agertzen ditu aipatu foiletoan. Horrerraino, dena ongi. Ustekabea etorri zen, ordea, le-maren euskarazko bertsioa irakurri nuelarik: «Fiestak bizitzen du» (sic) paratzen baitu erdarazko esaldi komertzialaren balokide gisa. Ene neurona-sistema txinpartaka gelditu zen. Behin eta berriz irakurri nuen mezu ulergaitz hura, ezin sinetsiz Leclerc bezalako enpresa erraldoiak tamaina horretako astakeria egin zezakeenik. Agian, festek, Sanferminek, batez ere, bezero batzuk bizi dituzte, ez dut nik hori ukatuko, eta horren adibide garbia urtean zehar egiten den zorieko eskailera dugu. Baina, zer arraio interpretatuko zuen itzul-tzaileak «Fiestak bizitzendu» (sic) paratzerakoan? «La fiesta vive» edo horrelako zerbait? ¡Qui vivra verraj.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Berriozar:** Flitter taldeak, La Paterak, Kadosek eta Khurarek kontzertua eskainiko dute, bihar, 21:00etan, Eguzki Plazan.
- **Lizarr:** Josetxo Goia-Aribek bihar kontzertua eskainiko du, 20:00etan, Fray Diego Kultur Etxean. Ekitaldian *Eunate* bere azken diska aurkeztuko du.

ERAKUSKETAK

- **Altsasu:** Trena hizpide duen erakusketa dago zabalik uztailaren 5a arte Gure Etxeko behealdean 19:00etatik 21:00etara.
- **Lizarr:** Javier Iriarteren instalakuntza ikusteko aukera dago heldu den irailaren 15era arte Gustavo de Maeztu museoa.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutoak Lisbonan abuztuan egiten den jaialdiera joateko aukera eskaintzen die hemezortzi eta hogeita hamar urte bitarteko 50 gazteei. Abuztuaren 1tik 10era Gaztediaren Nazioarteko Jaialdia egitekoa da Portugalgo hiriburuan. Informazioa lortu eta izena eman nahi duenak 948-42-78-20 telefonora deitu behar du edo Iruñean Arrieta kaleko 25. zenbakian institutoak duen egoitzatik pasa.
- **Iruñea:** IKAK eta AEKk euskarazko ikasteko edo maila hobetzeko aukera eskaintzen du udan. Iruñeritik hasi eta hainbat herritako

zerrenda luzea du. Ordugegi eta maila guztiakdaude aukeran. Informazioa eta izen ematea 948-22-22-46/63-77-96 edota 22-02-13/21-04-33.

► **Iruñea:** IPESek Umeentzako euskarazko tailerrak antolatu ditu abuztuan. Tailerrak abuztuaren 3an hasiko dira eta hilaren 28ra arte iraunen dute astelehenerik ostiralera, bi hamabostalditan. Izena eman eta informazioa lortu nahi duenak 22-59-91 telefonora deitu behar du.

► **Altsasu:** Trena eta Altsasuko herria mintzagai izanen

ditu Juan Jose Olaizola, Azpeitian dagoen Trenbi-dearen Euskal Museoko arduradunak, gaur, 20.00etan, Gure Etxeko behealdean.

► **Iruñea:** NUPEk eta Jeronimo de Ustariz Institutoak globalizazioa eta gizakia gaia lantzeko jardunaldia egiten dute gaur. Jardunaldia Gizarte Zientzien Fakultateko batzar aretoan egiten da eta bost hitzaldik eta bi mahainguruk osatuko dute. Besteak beste, Jesus Oliva Serranok «modernitatearen osteko nekazal arloaren irudikaketa» gaia landuko

du eta Joan Estruchek «erlijioa gizarte pluraletan: tradizioa eta modernitate».

► **Berriozar:** Itoiz eta uraren kudeaketa Nafarroan mintzagai izanen da gaur Gaztetxean 20:00etan egiten den mahainguruan. Bertan izanen dira, besteak beste: Itoitzekiko Elkartasuna taldekoak, Koordinakundeak, Uraren Aldeko Plataformakoak eta talde ekologistak.

► **Erratzu:** Datorren astelehenean M. Lujanbio eta S. Lizaso bertsoetan ariko dira 19:00etan eta afalondan herriko plazan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



"Lehenik mus jokoa, gero euskal pilota, berriki Bernardo Atxaga, eta orain, orain marrakuku yogurta kendu nahi digute".

Euskal Yogurta